

## ESPEZIALITATE IREKIAK MAISU-MAISTREN KIDEGOA ETA IKASKUNTZA SEKUNDARIKO IRAKASLEEN KIDEGOKOAK

### Eskabideak aurkezteko epea: urtarrilaren 19tik 25era, biak barne

15/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

#### GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

##### 597 – Maisu-maistren irakasleen kidegoa:

- Gorputz Hezkuntza

#### EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

##### 590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Gaztelania eta Literatura
- Filosofia
- Marrazketa
- Grekoa
- Informatika
- Latin
- Hezkuntza Orientazioa

##### 597 – Maisu-maistren kidegoa:

- Gorputz Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Pedagogia Terapeutikoa

Eskabideak eta agiriak **bakarrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko “Tramitatu”** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak egin behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinean agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, bat etorri Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.

**Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez**, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaien osatuko dute “masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)”. Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.